



Martxoak 8 Marzo

“Krisiaren irtenbidea, gizon eta emakumezkoen lana”
CCOO Euskadik Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatuko du asanblada delegatuekin eta kontzentrazioekin, Bilbon

2010ko martxoaren 2a

9.30ean. Bilbon. Ordezkarien BILERA.
Abokatuen Elkargoan (Rampas de Uribarte kaleko 10.ean Bilbo)

Aurkezpena: Unai Sordo, CCOO Euskadiko Idazkari Nagusia eta Feli Piedra, Emakumearen Idazkaritza.

Mahai-ingurua: “Krisiaren irtenbidea, gizon eta emakumezkoen lana”, parte-hartzaileak:

Javier López. Negoziazio Kolektiboko Idazkaritza.

Mari Cruz Vicente. Arabako Lurralde Arduraduna.

Santi Martínez. Gazteen Idazkaritza.

Esther Piñeiro. Gipuzkoako Gizarte Ekimeneko Arduraduna.

12.30ean: ELKARRETARATZEA
Confebasken egoitzan (Galtzada Nagusia, 45).

Konfederazioko ebazpena

Martxoak 8an, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, Euskadiko Langile Komisioetako Konfederazio Sindikalak, emakumeen aurkako diskriminazio era guztiak ezabatzeko konpromisoa berresten du, enpleguaren desegitea eta prekaritatea eragin dituen krisi ekonomikoak ilundu duen urte honetan.

Gizonezkoen enplegu desegitea gogorra izan den arren emakumezkoen jardun tasa txikiagoa izan da oraindik eta langabezia tasa gizonezkoena baino are handiagoa. Emakumezkoak dira, gazte eta etorkinekin batera laneko prekaritatea eta soldata desberdintasuna gehien pairatzen dutenak. Lan esparruan jasaten duten desberdintasun horrek krisi egoeran pertsona ahulagoak bihurtzen ditu emakumezkoak langabeziagatiko prestazioak ere txikiagoak dituztelako.

Testuinguru honetan, CCOOren usteetan berraktibazio ekonomikoak aldaketa eta berregituraketarako esparruak eskaintzen ditu, baina ezin ditugu inolaz ere berpizte

ekonomikoaren aitzakiarekin bazterketa eta desberdintasunak ahaztu. Horregatik da hain beharrezkoa genero ikuspuntu bat ezartzea etengabe gertatzen diren desberdintasunak gainditzeko, eskubide, hobekuntza eta gizarte babesarekin kalitatezko enplegurantz bideratuko gaituzten neurriekin.

Gaurko lan munduko egoera honetan negoziatzorako neurriak eta berdintasun planak sustatzen jarraituko dugu negoziazio kolektiboaren markoaren barruan. Gogor erantzungo dugu desberdintasun egoeren aurrean, beharrezkoa delako emakume eta gizonezkoen arteko aukera berdintasunaren inguruko eskubideak indartu eta finkatzea.

Euskadiko Langile Komisioak jakinarazi duenez benetako berdintasunera iristeko helburua urrun dugu oraindik: kontratu prekarietatea gehien pairatzen dutenak emakumeak dira: aldi baterakoa eta lanaldi partziala, jasotako prestakuntzari aitortza gutxi, soldata desberdintasun handiak eta bizitza pertsonala eta lanekoa bateratzeko zailtasunak are handiagoak. Horrek eragin zuzena dauka sustapen profesionalean eta lan egonkorra aurkitzerako orduan.

Beharrezkoa da lan esparruan zein esparru sozialean jardutea lan eta bizitza pertsonaleko denbora emakume eta gizonezkoen artean banatzeko bizitza pertsonala eta lanekoa bateratu ahal izateko.

Bestetik, beharrezkoa dugu Menpekotasun Legea aplikatzeko oztupoak ezabatzea. Emakumeen autonomia lortzeko ezinbesteko dugu gizarte azpiegiturretako inbertsio publikoa indartzea - geure herria Europako batz bestekotik oso urrun dagoena - menpekotasuna duten pertsonentzako arretan zein haur hezkuntzan.

Berdintasunaren aldeko politikak indartu behar ditugu emakume eta gizonezkoen ezarri zaizkien gizarte jarrera eta baloreetan beharrezkoak diren aldatetako sustatu eta emakumeen aurkako edozein

indarkeriaren aurkako prebentzio, trataera eta erabateko ezabatzearen aldeko sentsibilizazio eta esku-hartzean laguntzeko.

Hala ere, emakumeen parte hartze handiagoa eskatzen jarraituko dugu erabaki-gune publiko eta pribatuetan, emakume eta gizonezkoen arteko gizarte aurkezpen orekatua ahalbidetzeko, emakumearen presentzia batez ere ordezkartza eremuetan eta negoziazio kolektiboan bermatuz horrek indartuko baitu berdintasun politikekiko konpromiso sindikala.

Aktiboki babesten ditugu Nazioarteko Konfederazio Sindikalaren emakumeentzako lan duina eta politika eta lan hitzarmenetan genero berdintasunaren aldeko Kanpainak.

Pekingo Ekintza Plataformaren 15 urteak igarota, Nazio Batuen ebaluazioaren aurrean, herrialde desberdinen erantzukizuna eskatzen dugu sexuagatik oraindik dirauten desberdintasun handien aurrean baita munduan emakumeen aurka ematen diren bortizkeria era gogorak ezabatu ahal izateko konpromisoak indartu eta tinkotzeko.

Azkenik, munduan dirauten eta giza eskubideak urratzen dituzten gatazkak salatu nahi ditugu, gizartearentzat ondorio latzak eragiten dituztelako, batez ere emakumeentzat. Dagokien nazioarteko erakunde eta autoritateei gatazken bidezko amaierarako euren jarduna indartzeko eskatzen diegu.

CCOOk, Martxoaren 8an, Emakumearen Nazioarteko Egunean ospatuko diren ekimen desberdinetan parte hartzeko deia luzatzen dizue berdintasuna eta demokrazian oinarritutako gizarte batetarantz aurrera egiteko konpromiso eta erantzukizunaren alde.